

3seuskadi

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA SUSTATZEKO NEURRIEN V. TXOSTENA (2024)

Sektore publikoak bultzatutako sustapen-ekintza:
EAEko Administrazio Orokorra eta Foru
Administrazioak

2024

Separata: sustapen-ekintza hobetzeko proposamenak



3seuskadi

Hirugarren Sektore Sozialaren
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social



ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

3seuskadi

Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 19. artikuluaaren arabera, gizarte-politiken inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak urtero prestatuko du sustapen-neurrien gaineko txostena. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek sustapen-ekintzen gainekoa izango da txostena, publikoa izango da, eta sektore publikoak eta pribatuak bultzatutako sustapen-neurrien gaineko informazio eguneratua eta sistematizatua jasoko du, baita sustapen-ekintzak hobetzeko orientabideak ere.

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1 artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektore soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiazea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

Sustapen-ekintza hobetzeko proposamenak.....	5
Hobetzeko proposamenak orientazio estrategikoen arabera	6
1. orientabidea: Eragile askoren arteko elkarlana indartzea sustapen-neurriak bultzatzeko	8
Proposatutako jarduerak	8
2. orientabidea: Sustapen-ekintzaren gaineko informazio-sistema zehatzagoa eta gardena garatzea	10
Proposatutako jarduerak	10
3. orientabidea: Erakunde sozialen oinarri sozialaren egituraketa eta aktibazioa sustatzea.....	10
Proposatutako jarduerak	10
4. orientabidea: EHSSren ekarpen soziala ikusaraztea	12
Proposatutako jarduerak	12
5. orientabidea: EHSSren jasagarritasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea	12
Proposatutako jarduerak	12
6. orientabidea: EHSSk bultzatutako berrikuntza soziala sustatzea	13
Proposatutako jarduerak	13
7. orientabidea: EHSSren eraldaketa digitala bultzatzea	14
Proposatutako jarduerak	14
Jarduketak lehenestea.....	15
Jarduketan lehenespenaren sintesia	15
Lehenetsitako jarduketak.....	16
1.2. Administrazio publikoetan sustapen-ekintzaren zeharkakotasunean aurrerapausoak ematea	16
5.2. Finantzetarako zerga-mekanismoak aztertzea	17
2.2. Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzea sustapen-neurrietan	17

3seuskadi

7.3. HSSko erakundeek tresna eta baliabide teknologikoetarako sarbidea izan dezaten sustatzea.....	17
1.4. Eragileen arteko lankidetzak sustatzen duten prozedurak harmonizatzea eta malgutzatzea.....	17
2.3. Sustapen-neurrien sistema bateratua garatzea	18
Lehenetsi ez diren jarduketak aukeratzeko adierazitako arrazoiak.....	18



Sustapen-ekintza hobetzeko proposamenak

Hobetzeko proposamenak orientazio estrategikoen arabera

Txostenean ageri den moduan, 7 orientazio estrategikoek 28 jarduketa biltzen dituzte guztira, eta orientazioek ezarritako norabidea zehazten dute. Hala, hainbat arlo eta alderditako sustapen-ekintza guztiak hobetu ahal izateko proposamen ez lotesleen multzoa osatzen dute jarduketa horiek. Txostenean jasotzen den moduan, jarduketa horien taula bat ageri da jarraian, bakoitzari dagokion orientazio estrategikoaren arabera; eta, ondoren, jarduketa horien deskribapena ageri da, orientazioak eta proposamenak identifikatzeko antolatutako mintegian jasotako informazioaren arabera.

Proposatutako orientazioak eta jarduketak
1. orientabidea: Eragile askoren arteko elkarlana indartzea sustapen-neurriak bultzatzeko
1.1. Eragileen artean elkartzeko eta hitz egiteko espazioak sortzea edo dagoeneko badaudenak sustatzea
1.2. Administrazio publikoetan sustapen-ekintza zeharkako egiteko aurrerapausoak ematea
1.3. EHSS sustatzeko tokiko eta lurraldeetako estrategiak garatzea
2. orientabidea: Sustapen-ekintzaren gaineko informazio-sistema zehatzagoa eta gardena garatzea
2.1. Sustapen ekintzaren azterketa alderatua eskaintzea, beste lurralde, eskualde edo herrialde batzuetakoarekin alderatuta.
2.2. Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzea sustapen-neurrietan
2.3. Sustapen-neurrien sistema bateratua garatzea
2.4. HSSko enpresak eta erakundeak lotu ahal izateko plataforma sortzea
3. orientabidea: Erakunde sozialen oinarri sozialaren egituraketa eta aktibazioa sustatzea
3.1. Erakunde sozialen tokiko eta lurraldeko sareak sortzea
3.2. EHSSko erakundeen artean aliantzak sustatzea
3.3. Oinarri soziala aktibatzea eta belaunaldien arteko txandaketa bermatzea
4. orientabidea: EHSSren ekarpen soziala ikusaraztea
4.1. Erakundeei komunikazio-instrumentuak eta -tresnak erabiltzeko prestakuntza eta laguntza ematea
4.2. Komunikaziorako ereduak eta estrategiak (ikuspegiak) birpentsatzea.
4.3. Euskal administrazio publikoen artean EHSSk gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzen laguntzeko neurriak bultzatzea.
4.4. Kazetaritzako elkarrekin aliantzak egitea
4.5. Komunikazioa sektore espezifikoetara zabaltzea, hala nola hezkuntza-sektorerara
5. orientabidea: EHSSren jasagarritasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea
5.1. Europako proiektuetara sartzeko babes-egitura sortzea
5.2. Finantzaketarako zerga-mekanismoak aztertzea
5.3. BEZaren formulazioa berrikustea
5.4. Erosketa publiko arduratsua sustatzea
5.5. Merkatuen erreserbaren potentzialitatea garatzea

Proposatutako orientazioak eta jarduketak

6. orientabidea: EHSSk bultzatutako berrikuntza soziala sustatzea

- 6.1. Berrikuntza-klusterren sorkuntza bultzatzea
- 6.2. Proiektu sozial berritzaileei aitortza egitea eta baliabide ekonomikoak eskaintzea
- 6.3. Ezagutza-eragileak gehitzea berrikuntza sozialeko prozesuetan edo proiektuetan
- 6.4. Baliabide ekonomikoak edo beste mota bateko baliabideak eskaintzea erakunde sozialek bultzatutako esperimentazioari eta proiektu pilotu berritzaileen garapenari.

7. orientabidea: EHSSren eraldaketa digitala bultzatzea

- 7.1. Pro-bono boluntariotza sistema garatzea eraldaketa digitalean
- 7.2. Erakunde sozialetako langileei konpetentzia digitalen gaineko prestakuntza eskaintzea
- 7.3. HSSko erakundeek tresna eta baliabide teknologikoetarako sarbidea izan dezaten sustatzea

1. orientabidea: Eragile askoren arteko elkarlana indartzea sustapen-neurriak bultzatzeko

Proposatutako jarduerak

1. Eragileen artean elkartzeko eta hitz egiteko espazioak sortzea edo dagoeneko badaudenak sustatzea

Proposamen horren barruan, hirugarren sektore sozialeko eragile gakoak konektatzeko eta koordinatzeko duen garrantzia eta premia nabarmentzen duten hainbat ekimen jasotzen dira.

- Lehenik eta behin, eta, oro har, **sektoreen arteko sareak sortzea** sustatu behar da, eragileen interesen eta helburuen bateraketa eta artikulazioa gauzatzeko eta indartzeko.
- Bigarrenik, eta ikuspegi zehatzagoa aintzat hartuta, **diziplina anitzeko lantaldea sortu behar da sustapen-eragile guztien ordezkariarekin**. Talde horren helburuen artean egongo da lehentasunak definitzea, proiektuak identifikatzea, rola finkatzea edo koordinazio-tresnak garatzea, informazioa trukatu ahal izateko eta eragileen artean lankidetzan jarduteko.
- Bestalde, lankidetzak publiko-sozialari eta **elkarrizketa zibilerako mahaietan** sortutako batzordeen arlo espezifikoari dagokionez, mahai horietan gaitutako batzordeetatik sortzen diren **jarduketak edo proiektu espezifikoak garatzeko garaian enpresek edo beste eragile batzuek parte-hartzea** proposatzen da, proiektu horien ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean edo lehiaketara ateratu behar direnean.
- Azkenik, lankidetzak pribatu-sozialari dagokionez, **enpresen eta hirugarren sektore sozialaren arteko lankidetzak-tailerra jartzea martxan**. Tailer horrek lankidetzak pribatu-sozialak izan beharreko ezaugarrien, lankidetzak horretarako espazioen edo arloen, sustatu beharreko proiektu moten, sektore publikoak lankidetzaren arlo horretan duen rola eta abarren gaineko gogoeta bateratua egiteko aukera eman beharko luke.¹

Oro har, garrantzitsua da ezagutza sortzen duten erakundeetako (adibidez, unibertsitateetako) hainbat eragiletako espazio horietan sartzea, ekarpen garrantzitsuak egiten ditzaketelako garapen metodologikorako prozesuetan, ikerketan, berrikuntzan edo proiektuen ebaluazioan.

2. Administrazio publikoetan sustapen-ekintzaren zeharkakotasunean aurrerapausoak ematea

Politika publikoek hirugarren sektore sozialarekin koherentzia handiagoa izan dezaten lortzeko aurrerapausoak eman behar dira. Sektore horri eragiten dioten politikak (gizarte-politikak, enplegua, osasuna, etab.) eta haien sustapena gobernuak (erkidegoko eta lurraldeetako) hainbat sailetatik bultzatzen dira. Horri dagokionez, bi egoera aipatu dira gutxienez: (i) administrazio publikoetako sailen arteko koordinazioa hobetzeko tarte handia dago oraindik ere hirugarren sektore sozialaren sustapenari dagokionez eta (ii) desadostasunak daude administrazioaren arloek eta mailek hirugarren sektore sozialarekiko ezarri behar duten harremanaren mailari eta ulermenari dagokionez².

¹ Ekimen hori lotuta dago EHSSSeren XII. legegintzaldiko planarekin (2021-2024) gehitutako 20. jarduketarekin. Euskadiko enpresa-sektorearen eta EHSSren arteko lankidetzarako programa pilotua garatzea du xede jarduketa horrek.

² EHSSSeren legegintzaldiko planaren (2021-2024) 1. jarduketa Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSren arteko lankidetzaren zeharkakotasunean aurrerapausoak emateari buruzkoa da, eta, horretarako, sail guztiek EHSSren eta lankidetzak publiko-sozialaren gainean duten ikuspegi eta jarrera partekatua indartu behar dela ezartzen du.

Hurrengo EHSSSE Eusko Jaurlaritzako sail guztiek egin behar dutela eta sail guztiei eragingo diela nabarmendu da. Kontratazio publikoko prozesu guztietan ingurumeneko klausulak zeharka ezartzeko IHOBek egindako lana inspiratzailea izan daiteke.

3. EHSS sustatzeko tokiko eta lurraldeetako estrategiak garatzea

Lankidetzak publiko-sozialaren esparruan EHSS sustatzeko estrategia komuna izatea garrantzitsua dela aipatu da, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako EHSSSE zabaltzeko eta artikulatzeko. Horregatik, beharrezkoa da lurralde historikoetan eta udalerrietan EHSS sustatzeko estrategiak garatzea, EHSSSEekin behar bezala artikulatuta.

Estrategia horiek hainbat urtetarako izan beharko dute, epeak zehaztuta izan beharko dituzte eta baliabideen banaketa argia izan beharko dute. Horrez gain, jarduketan jarraipena eta koherentzia bermatu beharko dute.

4. Eragileen arteko lankidetzak sustatzen duten prozedurak harmonizatzea eta malgutzatzea.

Oro har, eragileen arteko lankidetzak sustatzeko, proiektu edo egitura kolaboratiboak bultzatu behar dira eta erantzukizunetik eta erronka partekatuetatik konfiguratu behar dira. Baina, horrez gain, harreman-esparru egonkorragoak, berritzaileak eta malguak sortu behar dira, prozesu konplexuetara egokitu ahal izateko. Horregatik, urteko esparru finantzarioak gaituzten agertokiek proiektu horietan aurreikusitako jarduketak hobeto garatzeko, eta, ondorioz, helburu partekatuak lortzeko arrakasta-aukera handiagoak izateko aukera eman dezakete.

Sustapen-neurri jakin batzuen (laguntzak eta dirulaguntzak, batik bat) oinarrian dauden egitura juridiko-administratibo zurrun batzuk aldatzeak lagundu dezake horretan adibidez. Horri dagokionez, COVID-19ak eragin zuen “administrazioaren ezohiko” egoerak EHSSren eta beste eragile batzuen arteko lankidetzak-proposamenak sustatu zituen, malgutasun handiagoa izan zelako askotariko premia-erantzukizunetako erroketen erantzuteko.

Zehatzago, eta eragileen arteko lankidetzak garatzeko ez ezik, baita sustapen-ekintzaren inpaktu handiagoa bermatzeko ere, honen moduko hainbat ekintza har daitezke kontuan:

- administrazio-prozedurak sinplifikatzea eta azkartzea neurrietarako sarbidea izateko;
- eragile publiko eta pribatuak sustapen-neurriak eskuratzeko ezartzen dituzten eskakizun administratiboak harmonizatzea, esaterako, ereduak eta izapideak estandarizatuz edo laguntzen eta dirulaguntzen kasuan eredu bakarra sortuz, deialdi guztiek partekatuko dituzten oinarriko esparruekin eta bakoitzaren ezaugarrien arabera beste esparru espezifiko batzuekin. Hala, edozein erakundek jakin dezake zer minimo eskatzen diren;
- baita “lehiakidetasun” baitan prozedurak bateratzeko saiakerak egitea ere.

Azkenik, gai horien (malgutasuna, egonkortasuna, azkartasuna...) gaineko gogoeta egitea oso garrantzitsua da erronka sozial espezifikoak partekatzen dituzten eragileen lankidetzan oinarritutako proiektu pilotuak martxan jartzeko.

2. orientabidea: Sustapen-ekintzaren gaineko informazio-sistema zehatzagoa eta gardena garatzea

Proposatutako jarduerak

1. Sustapen ekintzaren azterketa alderatua eskaintzea, beste lurralde, eskualde edo herrialde batzuetakoarekin alderatuta.

Azterketa konparatu horiek sustapen-ekintzaren koordinazioarekin lotutako jardunbide egokiak eta hobetzeko arloak identifikatzeko aukera eman behar dute.

2. Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzea sustapen-neurrietan

Neurriek EHSS indartzeko garaian eta EHSSren jardueren eraginkortasunean izan duten eragina ezagutzeko aukera emango luke horrek, eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezarriko lirateke bultzatutako neurrietan, sustapen-neurriak lortutako emaitzen arabera egokituz.

3. Sustapen-neurrien sistema bateratua garatzea

Eremuak, datuak jasotzeko eta iraultzeko irizpideak eta abar adostu ondoren, eragile sustatzaileen datuak, bultzatzen dituzten sustapen-neurrien informazioa eta beste erregistratu daiteke sistema horretan. Horrek existitzen diren neurrien, horiek sustatzen dituzten eragileek, erakunde sozial hartzaileen eta abarren gaineko informazio argia eta gardena lortzeko aukera emango luke, eta indartu edo aldatu beharreko sustapen-ekintzaren hainbat alderdi identifikatu ahal izango lirateke.

4. EHSSko enpresak eta erakundeak lotu ahal izateko plataforma sortzea

Plataforma hori erakundeek erregistroentzako edo boluntariotza-agentziek eskaintzen dituzten informazio-zerbitzuentzako baliabide osagarria izango litzateke, eta hainbat modutara sailkatutako erakunde sozialen direktorioa edo katalogoa izan lezake: GJHri egindako ekarpenaren arabera, jardura gauzatzen duen lurraldearen edo komunitatearen arabera, bere zerbitzuen hartzaileak diren kolektiboen arabera, eta abar.

Tresnak lankidetzat pribatu-sozialaren arazoetako bat konpontzen lagunduko luke: sektore pribatuak erakunde sozialen gainean duen ezagutza. Gainera, EHSSko erakundeekin harremana izateko aukera emango luke, enpresek hartzaileen kolektiboen gainean dituzten interesen edo lehentasunen, zerbitzuen, GJHei egindako ekarpenaren eta abarren arabera.

3. orientabidea: Erakunde sozialen oinarri sozialaren egituraketa eta aktibazioa sustatzea

Proposatutako jarduerak

1. Erakunde sozialen tokiko eta lurraldeko sareak sortzea

Sareen lurraldeko eta tokiko ezaipena indartzeak hirugarren sektore sozialak administrazio publikoko mailekin (tokikotik hasi eta erkidegokoraino) elkarrizketan aritzeko duen gaitasuna handitu dezake.

Halaber, beharrezkoa izango litzateke sareen koordinaziorako egituren egonkortasun ekonomikoa bermatzea, ezarpen-maila edozein izanik ere, informazioa trukatzeko eta sektoreen arteko eta barruko lankidetzak sustatzeko garrantzitsuak direlako.

2. EHSSko erakundearen artean aliantzak sustatzea

EHSSko erakundearen atomizazioak sektorea indartzea eta inpaktu handiagoko sustapen-ekintza bultzatzea zailtzen du. Sektorearen jasangarritasuna, eta zehazki ETE-en jasangarritasuna lortzeko aurrerapausoetako bat erakundearen artean partekatutako proiektuak edo aliantzak bultzatzea da.

Horri dagokionez, erreferentziazko hainbat figura daude enpresen arloan, besteak beste, ABEEak. Erakundearen artean aliantzak bultzatzeko adibide bat Kutxa Fundazioak³ sustatzen dituen ekimen sozialerako dirulaguntzen deialdia da, zenbateko altuagoak esleitzen baitizkie erakunde sozialen arteko hainbat urtetako lankidetzak-ekimenei. Halaber, ekimen horiek GJHei erantzuteko duten gaitasunaren arabera ere zenbateko bat edo beste esleitzen die. Hala ere, halako lankidetzak-proiektuek lan handiagoa eskatzen dute eta kudeaketa aurreratua egiteko konpetentziak behar dira. Hortaz, elementu horiek ez daude eskuragarri ETE-entzat.

Aliantzek sektore barruko lankidetzak-esparrua gainditu dezakete eragilearen arteko kooperaziora zabaltzeko. Izatez, hori da Europar Batasunak sustatutako proiektu eta programa askok planteatzen duten agertokia. Baina baita, esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako berrikuntza sozialerako proiektuena ere.

Hala ere, esan beharra dago Euskadiko Zerbitzu Sozialen Sistemaren itun sozialaren erregimena arautzen duen dekretuak erakundearen arteko lehiakortasuna handitu dezakeela, eta, horrek tentsioa sortuko luke balizko agertoki horren eta aliantzen sustapenaren artean.

3. Oinarri soziala aktibatzea eta belaunaldien arteko txandaketa bermatzea

Gizarte-erakundeetan kezka sortzen du belaunaldien arteko txandaketak. Horren aurrean, oinarri soziala mobilizatzea, herritarrekin konektatzea eta txandaketa hori egiteko herritarren parte-hartzea lortzea planteatzen da.

Horri dagokionez, boluntariotza-agentziek rol garrantzitsua izan dezakete parte-hartzea sustatzeko eta kanalizatzeko duten gaitasunarengatik, baina beste estrategia batzuk erabili behar dira, boluntarioak geroz eta aldizkakoagoak direlako gaur egun eta proiektuetara edo kausa jakinetara atxikitze joera dutelako, erakunde zehatz batera atxiki beharrean. Adibidez, “salmenta gurutzatuaren” estrategia ezarri daiteke boluntarioak bilatzeko garaian. Horrez gain, denbora eta konpromisoa duten adinekoen hobia ere existitzen da, eta horretan arreta jartzea komeni da.

³ <https://kutxafundazioa.eus/es/actualidad/16-fundacion/2708-kutxa-fundazioa-convocatoria-de-ayudas-a-iniciativas-sociales-y-culturales-para-2024.html>

4. orientabidea: EHSSren ekarpen soziala ikusaraztea

Proposatutako jarduerak

Sustapen-neurrien lehenengo txostenean jasotzen ziren EHSSren lan soziala komunikatzeko hiru jarduketek indarrean jarraitzen dute, baina, kasu batzuetan ñabardura batzuk gehitu zaizkie. Honako hauek dira horiek:

1. Erakundeei komunikazio-tresnen erabileran prestakuntza eskaintzea eta lagun egitea, egiten dutena kontatu eta inpaktu handiagoa lor dezaten.

2. Komunikaziorako ereduak eta estrategiak (ikuspegiak) birpentsatzea.

- Ikuspegi makroa: sektoreko komunikazio-kanpainak. Sektorearen irudi osoa eta positiboa transmititu ahal izateko komunikazio-kanpaina indartsuen garrantzia nabarmentzen da hemen. Horri dagokionez, garrantzitsua da EITBekin egindakoaren moduko aliantzak lantzea.
- Ikuspegi mikroa: harreman-sareak tokiko mailan. Beharrezkoa da behetik goranzko komunikazioa lantzen jarraitzea.

3. Euskal administrazio publikoen artean EHSSk gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzen laguntzeko neurriak bultzatzea.

Hori lotuta dago administrazio publikoen barruan sustapen-ekintza zeharka ezartzearekin eta politika publikoek hirugarren sektore sozialarekin koherentzia handiagoa izan dezaten lortzeko buruzko 1. orientazioarekin.

Bi proposamen horiei aurrekoak gehituta, ikusarazteko helburua bete daiteke:

4. Kazetarien elkarteekin aliantzak egitea EHSSk egiten duen lan sozialaren komunikazioaren kalitatea eta irismena hobetzeko.

5. Komunikazioa sektore espezifikotara zabaltzea, hala nola hezkuntza-sektorerara.

HSSk egiten duena belaunaldi berriei jakinaraztearen garrantzia nabarmendu dute, haiek izango baitira gure etorkizuneko gizartea.

5. orientabidea: EHSSren jasangarritasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea

Proposatutako jarduerak

1. Europako proiektuetara sartzeko babes-egitura sortzea

Europako finantzazioa lortzeko aukerak hirugarren sektore sozialeko erakunde askoren eskumenetik kanpo daude, giza baliabideen dedikazioagatik eta eska dezaketen espezializazio mailarengatik. Europako proiektuentzako orientazioa eta aholkularitza eskainiko duen babes-egitura bat izateak egoera hori arindu dezake.

Horri dagokionez, EHSSeren XII. legegintzaldiko planak “Europar Batasunarekin lankidetzatza sustatzea” izeneko 19. jarduketa jasotzen du. Ekimen horren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eta EHSSko sareen arteko lankidetzaren bitartez proiektuak garatzea Europako programen barruan.

2. Finantzaketarako zerga-mekanismoak aztertzea

Jasangarritasun ekonomikoaren aldeko apustu argia egin behar da zerga-mekanismoen bitartez, beste lurralde batzuetan egin den moduan. Esaterako, PFEZren % 0,7ko zordunketa duten dirulaguntzen programak sortzea eta deialdi espezifikoak eta gardenak ezartzea baliabideak inpaktu soziala duten proiektuetara bideratzeko. Edo sozietateen gaineko zordunketa duten dirulaguntza programak sortzea. Programa horiek enpresen eta erakundeen arteko lankidetzaz susta dezakete balio partekatuetan oinarritutako proiektu bateratuen bitartez.

3. BEZaren formulazioa berrikustea

Proposamena da BEZaren formula berrikustea eta, beharrezkoa baldin bada, aldatzea, hirugarren sektore sozialeko erakundeek gaineko zerga-karga murrizteko.

4. Erosketa publiko arduratsua sustatzea

Ondasunak, produktuak eta zerbitzuak erosteko eta kontratatze prozedura publikoetan irizpide sozialak eta ingurumenekoak ezartzea, enpresek eta esku-hartze sozialaren arloan lan egiten duten ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek merkatu publikora sartzeko dituzten aukerak hobetzeko.

5. Merkatuen erreserbaren potentzialitatea garatzea

Merkatuen erreserbak, hau da, administrazioak kontratazio publikoaren zati baten gainean duen erreserbak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen laugarren xedapen gehigarrian finkatutako ezaugarriak betetzen dituzten erakunde sozialei lagun diezaike garatzen eta indartzen (ekimen sozialeko enplegurako eta enpresara sartzeko zentro bereziak).

6. orientabidea: EHSSk bultzatutako berrikuntza soziala sustatzea

Proposatutako jarduerak

1. Berrikuntza-klusterren sorkuntza bultzatzea

Halako kluster motek baliabideen bilaketa eta eragileen arteko lankidetzaz susta dezakete hainbat arazo sozialentzako soluzio berritzaileak asmatzeko.

2. Proiektu sozial berritzaileei aitortza egitea eta baliabide ekonomikoak eskaintzea

3. Ezagutza-eragileak gehitzea berrikuntza sozialeko prozesuetan edo proiektuetan

Adibidez, HSSko erakundeek, unibertsitateen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzaz sustatuz.

4. Baliabide ekonomikoak edo beste mota bateko baliabideak eskaintzea erakunde sozialek bultzatutako esperimentazioari eta proiektu pilotu berritzaileen garapenari.

7. orientabidea: EHSSren eraldaketa digitala bultzatzea

Proposatutako jarduerak

1. Pro-bono boluntarioritza sistema garatzea eraldaketa digitalean

Sistema horrek boluntario teknologikoak identifikatuko lituzke enpresen plantilletan, ezagutza erakunde sozialetara transferitzen dela bermatzeko. Horrez gain, enpresak eta HSS gehiago hurbilduko lirateke elkarrengana.

2. Erakunde sozialetako langileei konpetentzia digitalen gaineko prestakuntza eskaintzea

3. HSSko erakundeek tresna eta baliabide teknologikoetarako sarbidea izan dezaten sustatzea

Adibidez, Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioak sustatutako Kit Digitala programarako sarbidea bermatzea. Programa horren xedea da itzuli behar ez diren dirulaguntzak eskaintzea enpresei, merkatuan eskuragarri dauden oinarritzko tresna digitalak lortzeko eta ekonomia osoaren digitalizazio-prozesua sustatzeko epe laburrean. Programa autonomoei eta ETE-ei zuzenduta dago.

Jarduketak lehenestea

Orientazioak eta hobetzeko proposamenak jorratu ziren mintegiko parte-hartzaileei identifikatutako 28 jarduketa garrantzitsuenetatik 5 lehenesteko eskatu zitzairen. Lehenespen horren helburua zen besteek baino erantzun azkarragoa behar zuten elementuak (ekintzak, arloak...) adieraztea, eta, azken batean, sustapen-sistema hobetzeko eta indartzeko aurrerapausoak ematen jarraitzeko pistak edo orientazioak eskaintzea.

Lehenesteko garaian hurrengo hiru irizpidetatik bat behintzat hartu zen kontuan: **garrantzia** (bere inpaktuagatik, izaera estrategikoagatik, etab.); **premia** (atzeratu ezin den beharrari erantzuten diolako, hori martxan jarri gabe ezin direlako beste jarduera batzuk garatu, etab.); **egingarritasuna** (martxan jartzeko baldintzak daudelako, egiteko ez delako ahalegin edo baliabide zailik behar, etab.).

Jarduketen lehenespenaren sintesia

Mintegian izan ziren 8 erakundek hartu dute parte lehenesteko prozesuan. Erakunde horiek, gutxienez, parte hartu duten erakunde-mota bakoitzari dagozkio: EHSSko erakundeak, Euskadiko banku-fundazioak, enpresa-taldeak eta administrazio publikoak.

Jarraian, modu sintetikoan adieraziko da lehenespenaren emaitza. Lehenengo 6ak erakunde parte-hartzaileek gehien aipatutako jarduketak dira.

Jarduera	Erantzunen kopurua	Erantzunen %
1.2. Administrazio publikoetan sustapen-ekintzaren zeharkakotasunean aurrerapausoak ematea	5	% 11,9
5.2. Finantzaketarako zerga-mekanismoak aztertzea	5	% 11,9
2.2. Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzea sustapen-neurrietan	4	% 9,5
7.3. HSSko erakundeek tresna eta baliabide teknologikoetarako sarbidea izan dezaten sustatzea	4	% 9,5
1.4. Eragileen arteko lankidetzat sustatzen duten prozedurak harmonizatzea eta malgutzea.	3	% 7,1
2.3. Sustapen-neurrien sistema bateratua garatzea	3	% 7,1
1.1. Eragileen artean elkartzeko eta hitz egiteko espazioak sortzea edo dagoeneko badaudenak sustatzea	2	% 4,8
2.4. HSSko enpresak eta erakundeak lotu ahal izateko plataforma sortzea	2	% 4,8
3.2. EHSSko erakundeen artean aliantzak sustatzea	2	% 4,8
3.3. Oinarri soziala aktibatzea eta belaunaldien arteko txandaketa bermatzea	2	% 4,8
5.5. Merkatuen erreserbaren potentzialitatea garatzea	2	% 4,8
3.1. Erakunde sozialen tokiko eta lurraldeko sareak sortzea	1	% 2,4
4.3. Euskal administrazio publikoen artean EHSSk gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzen laguntzeko neurriak bultzatzea.	1	% 2,4
5.1. Europako proiektuetara sartzeko babes-egitura sortzea	1	% 2,4
5.4. Erosketa publiko arduratsua sustatzea	1	% 2,4
6.2. Proiektu sozial berritzaileei aitortza egitea eta baliabide ekonomikoak eskaintzea	1	% 2,4
6.3. Ezagutza-eragileak gehitzea berrikuntza sozialeko prozesuetan edo proiektuetan	1	% 2,4

6.4. Baliabide ekonomikoak edo beste mota bateko baliabideak eskaintzea erakunde sozialek bultzatutako esperimentazioari eta proiektu pilotu berritzaileen garapenari.	1	% 2,4
7.2. Erakunde sozialetako langileei konpetentzia digitalen gaineko prestakuntza eskaintzea	1	% 2,4
1.3. EHSS sustatzeko tokiko eta lurraldeetako estrategiak garatzea	0	% 0,0
2.1. Sustapen ekintzaren azterketa alderatua eskaintzea, beste lurralde, eskualde edo herrialde batzuetakoarekin alderatuta.	0	% 0,0
4.1. Erakundeei komunikazio-instrumentuak eta -tresnak erabiltzeko prestakuntza eta laguntza ematea	0	% 0,0
4.2. Komunikaziorako ereduak eta estrategiak (ikuspegiak) birpentsatzea.	0	% 0,0
4.4. Kazetaritzako elkarrekin aliantzak egitea	0	% 0,0
4.5. Komunikazioa sektore espezifikotara zabaltzea, hala nola hezkuntza-sektorerara	0	% 0,0
5.3. BEZaren formulazioa berrikustea	0	% 0,0
6.1. Berrikuntza-klusterren sorkuntza bultzatzea	0	% 0,0
7.1. Pro-bono boluntariotza sistema garatzea eraldaketa digitalean	0	% 0,0

Hurrengo taulan lehenetsitako jarduketa gehien dituzten orientazio estrategikoak daude jasota:

Jarraibideak	Erantzunen kopurua	Erantzunen %
1. orientabidea: Eragile askoren arteko elkarlana indartzea sustapen-neurriak bultzatzeko	10	% 23,8
2. orientabidea: Sustapen-ekintzaren gaineko informazio-sistema zehatzagoa eta gardena garatzea	9	% 21,4
5. orientabidea: EHSSren jasangarritasun handiagoa lortzeko aurrerapausoak ematea	9	% 21,4
3. orientabidea: Erakunde sozialen oinarri sozialaren egituraketa eta aktibazioa sustatzea	5	% 11,9
7. orientabidea: EHSSren eraldaketa digitala bultzatzea	5	% 11,9
6. orientabidea: EHSSk bultzatutako berrikuntza soziala sustatzea	3	% 7,1
4. orientabidea: EHSSren ekarpen soziala ikusaraztea	1	% 2,4

Lehenetsitako jarduketak

Erakunde parte-hartzaileek lehenetsitako jarduketei egindako justifikazioak, iruzkinak edo oharra ageri dira jarraian.

1.2. Administrazio publikoetan sustapen-ekintzaren zeharkakotasunean aurrerapausoak ematea

EHSSren lana sustatzeko sail barruko eta sailen arteko koordinazio handiagoa beharrezkoa eta garrantzitsua dela nabarmendu da. Sektoreak harremana du eta izan behar du administrazio publikoetako sail guztiekin eta ez sail jakin batekin soilik. Normalean, administrazio bakoitzean politika sozialak edo ongizate sozialekoak kudeatzen dituen saila izaten da hori, eta hark egiten ditu harremanak gainerako sailekin.

Horrez gain, jarduketa horrek lotura estua du 4.3 jarduketarekin, hain zuzen ere, “Euskal administrazio publikoen artean EHSSk gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzen laguntzeko neurriak bultzatzea” jarduketarekin. Izan ere, bi jarduketa horietan aurrerapausoak emateak aukerak ekar ditzake administrazioaren politiken eta estrategien sustapen-neurriak zeharka ezartzeko.

5.2. Finantzaketarako zerga-mekanismoak aztertzea

EHSSren finantzaketaren dibertsifikazioa gauzatzeko zaila den gomendio historikoa da. Esparru horretan, finantzaketarako zerga-mekanismoak arakatzea eta baloratzea inpaktu handiko tresna estrategikoa izan daiteke, onurak ekarriko lizkiokeelako sektore osoari, baina, aldi berean, ezartzeko zaila da, EAEk hobetzeko tartea handia duelako Estatuarekin alderatuta.

Erreferentzia eta abiapuntua izan daitezkeen hainbat adibide daude estatu mailan horretarako. Hala, Estatuan eta hainbat autonomia erkidegotan, formula ekonomikoak jarri dira martxan zerga-mekanismoen bitartez, jasangarritasun finantzarioan modu gardenagoan eta parte-hartzaileagoan jarduteko. Hala, herritarrak eta enpresak inplikatzeko dira zuzenean eta legitimitate handiagoa ematen zaie tresna horiei. Halaber, mekanismo horiek sektoreko erakundeek eta enpresen arteko harreman zuzenak sustatzen dituzte eta horrek eragina du HSSren inpaktu sozialean eta ikusgarritasunean.

2.2. Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzea sustapen-neurrietan

Inpaktu sozialaren ikuspegia gehitzearen garrantzia nabarmendu da. Inpaktua (soziala eta ingurumenekoa) neurtzearen kultura pixkanaka ari da ezartzen enpresetan, beharrezko datuak atera ahal izateko elementua delako (lehen ez zen ezagutzen), betiere, erakunde gisa duen errendimendua hobetzeko, estrategia zehaztu eta planifikatzeko, edo zerbitzuak edo produktuak hobetzeko. Halako tresnen bitartez, HSSren erakundeek beren ekimenen edo gaur-gaurkoz identifikatu gabe dituzten baina eragileekin eta erakunde publikoekin lankidetzak handitzeko edo lankidetzaren kalitatea hobetzeko interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuen gaineko ezagutza hobetu dezakete.

Egun, inpaktu soziala kalkulatzeko askotariko tresnak erabiltzen ari dira sektoreko hainbat erakunde, eta, beraz, sektoreko gainerako erakundeentzat erabilgarria izan daitekeen aurretiazko lana egina dago jada.

7.3. HSSko erakundeek tresna eta baliabide teknologikoetarako sarbidea izan dezaten sustatzea.

Eraldaketa digitala agenda publikoaren barruan dago, nazioarteko esparrutik tokiko esparruraino. Digitalizazioa edozein erakunderen biziraupenerako elementu eztaba daezina da, baita HSSko erakundeentzat ere. Hala ere, EHSSk zailtasunak ditu garapenerako aukerak lortzeko arlo horretan. Sektorearen eraldaketa digitala sustatzeko apustu irmoa egiteak sektorearen jasangarritasuna susta dezake, sektorea indartu dezake eta inpaktu sozial handiagoa eragin dezake.

1.4. Eragileen arteko lankidetzak sustatzen duten prozedurak harmonizatzea eta malgutzea.

Prozedura administratiboek enpresen zein erakunde sozialen jardura zailtzen eta moteltzen dute, eta eragin kaltegarria izan dezakete eragileen arteko lankidetzan. Kasu batzuetan, sektoreko erakunde txiki eta ertainek ezin dituzte bete. EHSSren atomizazioa, hein batean, administrazio publikoen atomizazio propioaren isla dela aipatu dute. Hortaz, administrazioen prozedurak sinplifikatzeko, azkartzeko, harmonizatze eta bateratzeko ekintza guztiek hobekuntza ekarriko dute, bai erakunde handientzat, bai txikientzat.

2.3. Sustapen-neurrien sistema bateratua garatzea

Sustapen-ekintzaren eta bere zabalpenaren plangintza globala, bateratua eta koherentea eduki behar da, EHSSko erakunde guztiek babes berdina izan ditzaten lurralde guztietan. Neurri hori lotuta dago EHSSrekin loturaren bat izan dezaketen administrazio publikoetako sail eta departamentuetan sustapen-ekintza zeharka ezartzearekin (1.2. jarduketa).

Lehenetsi ez diren jarduketak aukeratzeko adierazitako arrazoiak

Hemen jasotzen diren erakunde parte-hartzaileek azkenean lehenetsi ez dituzten jarduketei egindako justifikazioak, iruzkinak edo oharra.

1.1. Eragileen artean elkartzeko eta hitz egiteko espazioak sortzea edo dagoeneko badaudenak sustatzea

EHSSren eta beste eragile batzuen artean lankidetzaz malguta izatearen garrantzia nabarmendu da; izan ere, faktore garrantzitsua izan daiteke premia-egoerei eta egoera aldakorrei erantzuteko.

2.4. EHSSko enpresak eta erakundeak lotu ahal izateko plataforma sortzea

Plataforma hori tresna baliotsua bihurtu daiteke, alde batetik, erakunde sustatzaileek eta sustapen-ekintzaren onuradunek elkar ezagutzeko eta haien arteko kooperazioa hobetzeko. Hala, erakunde sustatzaileek erraz eskuratu dute EHSSko erakundeek bultzatutako proiektuei buruzko informazioa (helburua, inpartua, epea, etab.), eta, kontrara, erakundeek eragile sustatzaileei buruzko informazioa ere lortu ahal izango dute (profila, lehentasunak, etab.). Bestalde, EHSSko erakundeek elkar ezagutzea sustatu dezake tresnak.

3.2. EHSSko erakundearen artean aliantzak sustatzea

EHSSren erakundearen arteko aliantzak sustatzeari dagokionez, bi puntu aipatu dira. Lehenik eta behin, ETE-en dimentsionamendua sustatu beharko litzateke. Horrez gain, eskala-ekonomiak, besteak beste, proiektu eta ekimen zorrotzagoetara iristen lagundu dezake -baita Europakoetara ere-, eta talentua bildu eta erakundearen bideragarritasun-arazoak konpondu ditzake.

3.3. Oinarri soziala aktibatzea eta belaunaldien arteko txandaketa bermatzea

Egun, hori da erakunde ororen erronka, publikoa zein pribatua izan. Zehazki, oinarri soziala ETE-en zailtasun espezifikoetara dagokienez aktibatzea beharra aipatu da.

5.5. Merkatuen erreserbaren potentzialitatea garatzea

5.4 “Erosketa publiko arduratsua sustatzea” puntuarekin dago lotuta jarduketa hau. Bi ikuspegi desberdin daude bien kasuan. Alde batetik, ikuspegi batek haien alde egiten du, haien potentzialtasuna ez delako behar beste ustiatu eta horiek sustatzeak inpartu handiko emaitzak izan ditzakeelako sektorean. Hala, administrazio publikoen eta EHSSko erakunde garrantzitsuen artean erosketa publiko arduratsurako espazio bat martxan jartzearen aldeko apustua egin da, arlo horretan eta erreserbatutako merkatuetan formatzeko, laguntzeko, babesteko, zabaltzeko eta koordinatzeko.

Bestalde, beste ikuspegi bat jarduera mugatzearen aurka agertu da, enpresen askatasunaren aurkakoa delako.

3.1. Erakunde sozialen tokiko eta lurraldeko sareak sortzea

Helburu estrategikoa da eta Sareen Sarea hartzen da helburutzat. Sektorea lurralde mailan (tokikoan baino gehiago) artikulatzea eta lurraldeen eta Euskadiren arteko lotura eta koordinazioa artikulatzea da EHSSren sustapen-estrategien arteko logika eta koherentzia. Helburua ez da sare gehiago sortzea, existitzen diren sareek ez baitute baliabideen egonkortasun nahikorik, baizik eta lurraldean finkatzea, hainbat mailatara egokitutako erantzuna eman ahal izateko. Hain zuzen ere, administrazio publikoek badituzte dagoeneko lurralde-ezarpena eta koordinazio-mekanismoak.

4.3. Euskal administrazio publikoen artean EHSSk gizarteari egiten dion ekarpena ezagutzen laguntzeko neurriak bultzatzea.

Aipatutakoaren arabera, jarduketa horrek lotura zuzena du 1.2 puntuarekin: “Administrazio publikoetan sustapen-ekintza zeharkako egiteko aurrerapausoak ematea”. Biek sor ditzakete administrazioetako politikan eta estrategietan sustapen-neurriak ezartzeko aukerak. Halaber, epe oso luzeko jarduketak dira, eta, beraz, lehenbailehen hastera da apustua.

5.1. Europako proiektuetara sartzeko babes-egitura sortzea

Europako proiektuetara sarbidea izateko, eragileen arteko lankidetzak eta koherentzia indartu behar da, sustapen ekintzen inpaktua maximizatu ahal izateko.

5.4. Erosketa publiko arduratsua sustatzea

Ikusi “5.5 Merkatuen erreserbaren potentzialitatea garatzea” puntuan aipatutakoa.

6.2. Proiektu sozial berritzaileei aitortza egitea eta baliabide ekonomikoak eskaintzea

Proiektu sozial berritzaileen finantzaketa baino gehiago, erakunde sozialen jasagarritasun ekonomikorako arazoak nabarmendu behar dira. Berariazko neurri batzuk aipatzen dira, hala nola finantzaketa-plan egonkor bat izatea zerbitzuak eta zaintzak ematen dituzten erakunde horientzat guztientzat, zeinak, administrazio publikoaren erantzukizuna izan arren, EHSSko erakundeek hornitzen baitituzte. Horrez gain, Euskadik finantzazio-mekanismo berriak eduki behar dituela EHSSren erakundeei funts publiko nahikoak eskaintzeko, eta PFEZren helburu sozialetarako zerga-bilketaren gainean gardentasun handiagoa lortzeko.

6.3. Ezagutza-eragileak gehitzea berrikuntza sozialeko prozesuetan edo proiektuetan

Ezagutza-eragileak, hala nola unibertsitateak, berrikuntza sozialeko prozesuetara integratzea planteatzen da, EHSSko erakunde guztiek beraiek sortzen duten *know how*a eskuratu eta jaso dezaten.

6.4. Baliabide ekonomikoak edo beste mota bateko baliabideak eskaintzea erakunde sozialek bultzatutako esperimentazioari eta proiektu pilotu berritzaileen garapenari.

Ekintza hori martxan jarritako beste ekintza batzuekin lotu daitekeela adierazi dute, hala nola Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak sustatutako Berrikuntza Sozialerako Euskal Ekosistemarekin. Izan ere, administrazio publikoek, EHSSko erakundeek eta sareek, eta unibertsitateek eta ikerketa-zentroek hartzen dute parte bertan⁴.

7.2. Erakunde sozialetako langileei konpetentzia digitalen gainerako prestakuntza eskaintzea

Digitalizazioa edozein erakunderen bizikidetzarako ezinbesteko elementua dela adierazi dute.

⁴ <https://sareensarea.eus/noticias/avanzamos-en-el-impulso-del-ecosistema-vasco-de-innovacion-social/>